

Erref: KM_2018_argiteria_09

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-
ZERBITZUAK, MANTENU ETA BERME OSOAREKIN**

KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (9)

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2018ko otsailaren 23an, goizeko 8:00ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburua
Aingeru Astui Zarraga A^a, zinegotzia
Jurdana Uriarte Lejarraga A^a, Udal Idazkaria
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkariaren ordezkoa

Batzar honetarako, Zerbitzu saileko teknikaria, aholkulari moduan, egon da.

Kontratu Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (OARC/KEAO), VALORIZA FACILITIES, S.A.U. enpresak egindako errekurtsori buruz egindako bere 2017ko azaroaren 27ko 129/2017 ebazpenean ezarritako betez, 2018ko urtarrilaren 25ean, enpresa lizitatzaileri, behin behineko bermea birjartzeko errekerimendua egin zitzairen. Emandako epea amaitu ondoren enpresa hauek errekerimendua bete dute:

- Clece, S.A.
- Tecuni, S.A.
- UTE FCC, S.A. - FCC industrial e infraestructuras energéticas, S.A.U. - Soprener, S.L.

Errekerimenduan azaltzen zen moduan, eskatutakoa bete ez dutenez, beste enpresa guztiak lizitazio prozesutik kanpo geratzen dira.

Honela, prozesuari jarraituz, Zerbitzu Saileko teknikariak egindako C gutun azaleko balorazio tekniko eta lizitazioaren hurrenkera zerrenda jakinarazten da:



Eskaintzetan jasotako dokumentazioaren azterketaren balorazioa, oker edo hutsik ezean, honako hau da:

Zk.	ENPRESA	PUNTUAK (0-50)	Ehuneko gehigarria %	PUNTUAK (0-10)	C1			C2			ESKAINTZAREN PUNTAZIOA
					P4 GAUZATZEKO EPEAREN URRITZEA (0-2)			ESKAINNTZA EKONOMIKOA (0-38)			
				P4 gauzatzeko epea	P4 gauzatzeko epearen urritzea	PUNTUAK (0-2)	Eskaintza ekonomikoa (urteko)	Eskaintza ekonomikoa (kontratua)	PUNTUAK (0-38)	PUNTUAK (0-100)	
1	TECUNI, S.A.	47,00	90,00	10,00	14	12	0,00	257.278,93 €	3.087.347,16 €	0,00	57,00
2	CLECE, S.A.	16,00	90,00	10,00	16	10	0,00	186.354,68 €	2.236.256,16 €	27,57	53,57
3	UTE FCC,S.A- FCC Industrial - SOPRENER	15,75	90,00	10,00	12	12	2,00	200.599,38 €	2.407.192,56 €	22,03	49,78



Balorazioa egin ondoren Zerbitzu Saileko teknikariak honako proposamena luzatzen dio Kontratazio Mahaiari.

“BAKARRA: Txosten honetan jasotakoa Kontratazio Mahaiari jakinaraztea eta adierazitakoa aintzat hartuz gero, Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoarekin kontratua Tecuni, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egin diezaiola Kontratazio Organoari.”

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau proposatzen da:

LEHENA: Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoarekin kontratua Tecuni, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egitea.

BIGARRENA: Hemen jasotakoa **Kontratazio Organoari (Osoko Bilkura)** bideratzea dagozkion ondorioetarako.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

IDAZKARIA

